

## **SOR AMBROSIA OROBENGOA**

Ambrosia Orobengoa Gallastegi Eskoriatzako Maringo Lukaran baserrrian jaio zen. Lukaran baseria Aramaionako lurraldeen mugatiko oso hurbil dago, Azkoaga auzkotik hain zuen ere, eta Maringo Santa Maria Magdalena parrokian izan zen bataiatua, apaiz D. Juan Santos de Aramburuzabala zelarik. Jorge Vengoa Yturbe eta Leona Gallastegi Uribe bikotearen bosgarren sema-alaba da.

Bere anai-arrebak Christobal, Hilaria, M<sup>a</sup> Cecilia, M<sup>a</sup> Gabiana, Ponciano Francisco, Petra eta Manuel izan ziren, hortik aparte jaio berritan hildako beste bi mutiko ere izan ziren.

Ez dakigu noiz eta zergatik, baina abizena moztuta agertzen da; eta Orobengoa izan ordez Vengoa azaltzen da; horregatik sema-alaba guztiak Vengoa Gallastegui abizenekin agertzen dira.

Gure protagonistaren aita Azkoagakoa zen (Aramaio) Gabriel de Bengoa Jauregi (Gantzagakoa) eta Felipa Yturbe Lasaga, Azkoagakoa.

Ambrosiaren gurasoak ezkondu zirenean, 1869ko apirilaren 3an, 23 urtekoa zen aita. Su Bere emaztea, Ambrosiaren ama joskina zen 19urterekin ezkondu zenean, eta Domingo de Gallastegi Aranzabal (Elgetakoa) eta Teresa Uribe Agirre Gabiria (Maringoa), Agarre baserriko ondorengoa, zeintzuk Lukaran baserriko ugazabak ziren (garai hartan bi etxebizitzakoa) seguruenik XVIII edota XIX. Mendean eraikitakoa Agarrekoek euren lurraldeak behi-aziendaz uztia zezaten, landu ondoren. Bigarren mailako baseria zela adierazgarri XIX. Mende bukaerako errenta ikusita frogatzen da; bertako errenta 198 errealekoa izanik Maringo bataz-bestekoa 587 erreal zenean. Urte batzu beranduago Lukarango ondorengoak Agarrera itzuli ziren bertako utziaz. Horma ondarrak gelditzen dira.

Esan bezala Ambrosia, Lukaran baserrian jaio zen 1881ko uztailaren 1ean. Ostirala zen eta ilgora. Urte honetan jaiotza esanguratsuak eman ziren, mundurako une gogoangarriak: Pablo Ruis Picasso, Juan XXIII, Alexander Fleming, Teilhard de Chardin eta Juan R. Jimenez jaio ziren, bestalde, Iparragirre euskaldun bardo unibertsalaren heriotza ere jaso zuten.

19 urte zituela, hau da 1900. urtean Mesedetako Kongregazioan sartzen da; lehenago Aretxabaletan jaso dugu bere aztarna, bertako etxe batean baserriko lanak egiten.


Kongregaziona Juan Nepomuceno Zegri, apaizak sortu zuen 1878; bere karisma, txiro, gaixo eta marjinatuen arteko lan egitea zen txiroen pertsonengan mesede lanak bai gorputzarentzakoak zein animarentzakoak zabalduz.

Ordena hainbat elizabarrutian hedatu zen, bere karisma medio zela. Zegrik berak esan zuen "lana ez da bukatuko min bakarra sendatu gabe gelditzen bada, ezbehar bakarra kontsolatu gabe edota mindutako bihotzetan esperantza tantaka isuri gabe.

Giro honetan sartzen da Sor Ambrosia, eta 1913an Granadako Lojako Ospitalera bialtzen dute lanera.

Gaur egun "Mesedeetako Ama" Nagusien Egoitza, garaia hartan Lojako Ospitale Zibila San Frantzisko auzoan kokaturik dago herriarekin Gran Capitan izeneko zubiaren bitartez lotzen delarik. Bertako biztanleak behartsuak dira; orduan ez zegoen Aseguru Sozialik eta apena zeukaten dirurik osasun laguntzarik eskuratzeko; beraz Meseetako Ahizpengana jotzen zuten eurengandik beharrak asetu nahian, arreta eta maitasuna. Monjen artean, bere pairamen eta lan egokiagatik Sor Ambrosia nabaritu zen.

Jada 80 urte igaro dira; baina jendeari nagusiari galdetzen zaionean zer gogoratzen duten Sor Ambrosiaz "Que era una Santa". Eta hasten dira kontatzen herriari egindako mesede guztiak,



bere aldeko jarrera, edozein ordutan,  
"Nola maitatzen zuen herriak!  
Hiltzerakoan jendeak bere zertxobait  
gorde nahi zuen sainduen erlikia  
bezala. Calcutako Teresa baten aurrean  
gaude?

1935eko otsailaren 1ean hil zen bertako Ospitalean.

Herri osoa bildu zen bere hileta-  
elizkizunetan eta inoiz ikusitako  
jendetzaren minaren adierazpena ageri  
zen. Udala bere osotasunean agertu

*zen, agintariak, eta hiru elizatako apaizak. Jende negarrez...*

Honaino ikusi dugu Elizak nola jaso zuen gertatutakoa; ikusi dezagun nola jaso zuen garaiko egunkariak "El Ideal"ek. (laburpena)

**"A la muerte de Sor Ambrosia"** *El corazón de los lojeños está de luto. Sor Ambrosia se fue con una sonrisa muy dulce y un rostro sereno.*

*¿Cuántos, Sor Ambrosia, monjita humilde, te deben su bienestar y su vida? ¡Tantos..., tantos! Todos acudían a ti y tenían tanta fe en tu fe cristiana y encontraban tanta dulzura en tus maternales delicadezas, que fueron haciendo de ti, de una monjita humilde, toda una institución incombible y eterna.*

*Tu caridad era inconcebible. Hiciste curas tan maravillosas, que ya va diciendo por ahí la leyenda que en tus dedos se asentaba el prodigo; pero no, lo que se asentaba en tu alma eran destellos de la caridad de Cristo, "Amaos los unos a los otros", y tú te consumiste amando a los humildes, que son los más necesitados de amor."*

Une historiko honetan Udala Ez ohizko bileran elkartzen dira eta honako hau erabakitzendute. (laburpena)

*"El Sr. Presidente hace uso de la palabra, exponiendo que, como consta a los Señores Vocales, ha fallecido la Hermana del Hospital Civil de esta población Sor Ambrosia, cuyo solo nombre es un símbolo de abnegación, altruismo y sacrificio en pro del desvalido. Con su gran obra había sabido meterse en el corazón del pueblo, que espontáneamente rindió homenaje y tributo de respetuoso sentimiento a su memoria en el acto de su sepelio, habiendo sido de admirar que hombres de avanzadas ideas políticas se disputaban el honor de llevar en hombros el cuerpo de la bienhechora que había curado sus llagas y lacras con verdadera abnegación, que solo fructifica por la caridad cristiana, sintiéndose, el que habla muy orgulloso de que sea este Ayuntamiento republicano el que haga honor a los muchos merecimientos de Sor Ambrosia para que su nombre perpetúe eternamente como norte y guía de los que debe hacerse con los humildes entre las sucesivas generaciones de este vecindario..."*

Zinegotziak euren konformidadea azaltzen dute hileta-elizkizunak ordaintzeko, behin betiko nitxoa ematen ematen zaio eta bere oriomenerako plaka bat jartzea erabakitzendute.

Mesedeetako Kongregazioneark 2012an utzi zuen Loja.

